

Erregistro Zibilaren azken eraldaketa, dagoeneko indarrean jarri den zatiari dagokionez

ESTHER URRUTIA IDOAGA

Deustuko Unibertsitateko zuzenbide zibileko irakaslea

1. OHAR HONEN HELBURUA

Estatuaren Aldizkari Ofizialak, 2011ko uztailaren 22an¹, Erregistro Zibilari buruzko bi lege-testu argitaratu ditu: bata, Erregistro Zibilaren Legea, hots, uztailaren 21eko 20/2011 Legea; eta, bestea, uztailaren 21eko 8/2011 Lege Organikoa, Erregistro Zibilaren Legea osatu, eta Botere Judizialaren Lege Organikoa, hau da, uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa, aldarazi duena. Argitaratutako bi lege horiek indarrean jarriko dira, argitalpen-datatik hiru urtera, alegia, 2014ko uztailaren 22n. Salbuespenez, Erregistro Zibilaren Legeko zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak, eta azken xedapenetatik hirugarrena eta seigarrena indarrean jarri dira, beroriek Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko egunaren biharamunean; beraz, indarrean daude.

Ohar honek helburu du, labur-zurrean, dagoeneko Erregistro Zibilaren arloan, eta, oro har, zuzenbide zibilaren arloan indarrean jarri diren arau berriak aztertzea. Horretarako, behin lau xedapen horiek orokorretan aipatuta, banan-banan aztertuko dira, eta, banako azterketa horretan, bereizi egingo dira, batetik, ganbera legegileetan egindako ibilbidea, eta, bestetik, xedapen bakoitzaren ondoriozko berrikuntza.

¹ 175. zenbakian.

Hiru urte barru indarrean jarriko den eraldaketa, ziur asko, beste ohar baten edo beste azterlan baten nahiz batzuen xedea izango da.

2. ERALDAKETAREN NONDIK NORAKOAK ZEHATZ-MEHATZ

Erregistro Zibilaren Legeak, hots, uztailaren 21eko 20/2011 Legeak, hauxe ezartzen du azken xedapenetatik hamargarrenean:

Azken xedapenetatik hamargarrena. Indarrean jartzea.

Lege hau indarrean jarriko da, «Estatuaren Aldizkari Ofizial»ean argitaratu eta hiru urte igarotakoan; salbuespenez, zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak, eta azken xedapenetatik hirugarrena eta seigarrena indarrean jarriko dira, beroriek «Estatuaren Aldizkari Ofizial»ean argitaratzen diren egunaren biharamunean.

Lege hau indarrean jartzen ez den bitartean, Justizia Ministerioak beharrezkoak diren neurriak eta arau-aldaketak prestatuko ditu, betiere neurri eta arau-aldaketa horiek, justizia modernizatzeako prozesuaren barruan, erregistro zibilaren antolaketa eta jardunbidearen gainean eragina duten heinean.

Hitzaurrearen azken lerroakadak honetara justifikatzen du *vacatio legis* luze hori:

*Legea konplexua da, eta, aurreko ereduari begira, erro-errotiko aldaketa dakar. Horregatik, komeni da *vacatio legis* deiturikoaren epea luzea izatea, hiru urtekoa, hain justu ere. Horrexek ahalbidetuko du eredu berria ezari-ezarian abiaraztea, eta, aldi berean, erregistro-informazioaren gaineko tratamendua egitean eta antolaketaren egitura berria ezartzeko orduan, disfuntzioak gertatzea saihestuko du.*

Hiru urteko *vacatio legis* horren salbuespenak dira, izan ere, ohar hone-tan aztertuko diren xedapenak, xedapenok dagoeneko indarrekoak baitira. Gobernuak lege-proiektua Diputatuen Kongresuari igorri zion

2010eko irailaren 8an, ganbera legegile horretan eztabaidatua izan². Bada, Gobernuaren proiektu horretan ez zen agertzen hemen aztergai diren xedapenetatik bat ere. Hortaz, diputatuek, eta, batez ere, senatariek egindako ekarpenen ondorio dira xedapenok, legegintza-prozesuan zehar txertatu baitzaizkio hasierako lege-proiektuari. Justizia ministroak, Caamaño Rodríguez jaunak, 2011ko uztailaren 14an, Diputatuen Kongresuaren osoko bilkuran, honako adierazpen hauek egin zituen³, esandakoaren harira, Erregistro Zibilari buruzko lege-proiektuari azken onspena eman zitzaionean:

Lege hau eredu ona da, talde politikoen arteko elkarrizketa ireki eta aberasgarria agerian uzteko. Elkarrizketa hori Kongresuaren nahiz Senatuaren justizia-batzordeetan gauzatu da, batik bat. Eta nik, Justizia-ministroa naizen heinean, eskerrak eman nahi dizkiet bi batzorde horiei, lan bikaina egin dutelako. Lan horri esker, gizakiari nortasuna aitortu zaio, jaiotza-UNETIK bertatik, eta hori oso garrantzitsua da, Kode Zibilak antzinako eskemei eusten zielako. Era berean, Parlamentuko ganberen arteko lankidetzara eta ekimenen ondorioz, agiritegi berezia sortu da, sei hiletik gorako haurdunaldiaz geroztikako hilotzentzat. Agiritegi horrek ahalbidetzen du, besteak beste, gurasoek hilotzari izena jartzea $\frac{3}{4}$ Convergència i Unió taldeko bozeramaileak aipatutako Amanda-eraldaketaren harira $\frac{3}{4}$. Ganbera legegileen arteko elkarlanak eragin du, halaber, osasun-arloko langileek egiaztapen egokiak egin ahal izatea, jaioberrien nortasuna bermatzeko; edota hamasei urtetik gorakoek, legezko kasuetan, izen-abizenak aldatzeko eskubidea izatea etab. Bereziki azpimarratu nahi ditut eta balioa aitortu nahi diet proiektu honetan Senatuak zuzenketen bitartez egindako eraldaketa esanguratsuei; halakoak dira, batetik, erbesteratutako amen kasua, oroimen historikoa berresku-

² Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-1 zk., 2010eko urriaren 8koa.

³ Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresuaren Bilera Egunkaria, 2011. urtea, 262. zk., osoko bilkuraren 249. bilera, 2011ko uztailaren 14koa, 31. or.

ratzeko eta erbestea jasan behar izan dutenei aitortza egiteko balio duelako, eta, bestetik, diktaduraren ondorioz desagertutako en kasua, halakoak erregistroan agerraraztea errazten duelako.

2.1. Zazpigarren xedapen gehigarria

Xedapenak banan-banan aztertzeari ekinez gero, hona hemen aurrenekoaren testua:

Zazpigarren xedapen gehigarria. Naziokoen nahiz atzerritarren identifikazio pertsonalerako datuak eskura jartzea.

Lege honen 6. artikuluan aipatutako kode pertsonala egoki prestatzeko, bai eta kode hori beharrezkoak diren aplikazio informatiko guztietan erabiltzeko ere, Barne Arazoetarako Ministerioak Justizia Ministerioaren eskura jarriko ditu kasuan kasuko segida alfanumerikoak, indarreko sistema informatikoak nortasun-agiriari eratxikitzen dizkionak, eta eskura jarriko ditu, orobat, atzerritarren identifikazio-zenbakia eta identifikaziorako balio duten gainerako datu pertsonalak, aipatu agirien datu-baseetan halako datuak agertzen direnean.

Era berean, Justizia Ministerioak Barne Arazoetarako Ministerioaren eskura jarriko ditu Erregistro Zibilean inskribatutako identifikazio-datu pertsonalak, datu horiek nortasun-agirian edo atzerritarren identifikazio-zenbakian agertu behar direnean.

2.1.a. Ganbera legegileetan egindako ibilbidea

Egia esan, Diputatuen Kongresuak, lege-proiektuaren hasierako orrazketa egitean, ez zuen arau honen inguruko aipamenik ere egin. Senatuan, aitzitik, Justizia Batzordeak irizpena eman zuenean⁴, xedapen ge-

⁴ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 81-530 zk., 2011ko ekainaren 21ekoa, 57. or.

higarri berria jaso zuen, hain zuzen ere, zazpigarrena, egun indarrean dagoena eta orain hitzez hitz duen testuarekin. Senatuaren osoko bilkurak, 2011ko ekainaren 22ko bileran, irizpen hori onetsi zuen⁵, eta, ondorenez, zazpigarren xedapen gehigarriari eutsi zion. 2011ko ekainaren 29an, Senatuak mezu zioduna bidali zion Diputatuen Kongresuari⁶, testuan egindako zuzenketak arrazoitzeko. Zazpigarren xedapen gehigarriari buzur, mezu ziodunak honako arrazoi hauek azaldu zituen:

Zazpigarren xedapen gehigarri (berria)

Xedapen gehigarri berri honetan ezarritakoaren arabera, Barne Arazoetarako Ministerioak eta Justizia Ministerioak elkarren eskura jarri beharko dituzte naziokoen nahiz atzerritarren identifikaziorako datu pertsonalak⁷.

Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak, 2011ko uztailaren 14ko bileran, Erregistro Zibilaren Legeari buruzko proiektua behin betiko onetsi zuenean⁸, ez zuen ukitu ere egin zazpigarren xedapen gehigarria, eta bere horretan geratu zen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

2.1.b. *Xedapen honen ondoriozko berrikuntza*

Uztailaren 21eko 20/2011 Legeak, oro har, itxura berria eman dio Erregistro Zibilari, erakunde hori, estatu osoan bakarra izanik, moderno, azkar eta eskuragarri gerta dadin; horretarako, teknologia berriak barruratu ditu eta herritarren beharrezanean erreparatu die. Erregistroko liburu-bildumen orde, datu-base elektronikoko bakarra ezarri du. Lege berri-

⁵ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-556 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 2.etik 33.erako orr.

⁶ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-557 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 34.etik 84.erako orr.

⁷ 34. or.

⁸ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-31 zk., 2011ko uztailaren 21ekoa.

aren ondorioz, Erregistro Zibilean ez dira lau atal bereiziko (jaiotzak eta orokorra; ezkontzak; heriotzak; tutoretza eta lege-ordezkaritzak). Atalen arteko bereizketa hori alde batera utzita, gizaki bakoitzak bere erregistro banakako eta pertsonala izango du, jaiotza-UNETIK bertatik edo naziotasuna eskuratzen duenetik (hau da, gizakiari buruz lehenengo idazkuna egiten denetik); bertan agertuko dira, elkarren segidan eta hurrenkera kronologikoaren arabera, nortasunari, egoera zibilari eta legez ezarritako beste inguruabarrei buruzko egitateak eta egintzak. Fitxa pertsonal bakar horri kode pertsonal zehatz bat esleituko zaio; kode pertsonal hori izango da, hain justu ere, indarreko sistema informatikoak nortasun-agiriari eratzikitzen dion segida alfanumerikoa. Hortaz, Erregistro Zibila, egitateen erregistroa izan beharrean, pertsonen erregistro bilakatuko da, eta, segida alfanumerikoari esker, erabiltzaileak orotariko izapideak egin ahal izango ditu Erregistro Zibilean. Are gehiago, fitxa pertsonala bide telematikoetatik kontsultatu ahal izango da, ziurtagiriak Interneten bitartez lortu ahal izango dira, eta administrazioek ere, izapideak egin behar dituztenerako, eskuragarri izango dute segida alfanumeriko hori.

2.2. Zortzigarren xedapen gehigarria

Hona hemen, jarraian, bigarren arau berriaren testua:

Zortzigarren xedapen gehigarria. Gerra zibilean nahiz diktaduragaraian desagertutako en heriotza inskribatzea.

Gerra zibilean nahiz haren ostekoxeko errepresio politikoan desagertutako en heriotza inskribatzeko, titulu nahikoa izango da eskatzailearen mesederako ebatzitako erregistro-espeditentea, baldin eta hark ekarritako frogak zentzuz ondorioztatzen badute desagertutako en heriotza gertatu izana, nahiz eta frogok heriotzaren ostekoxekoak izan ez. Frogak balioesteko orduan, kontuan hartuko dira, bereziki, igarotako denbora, arriskuari dagozkion inguruabarrak eta pertsekuzio- nahiz indarkeria-zantzuak.

2.2.a. Ganbera legegileetan egindako ibilbidea

Gobernuak lege-proiektua Diputatuen Kongresuari igorri eta gero, ganbera legegile horretan zuzenketak aurkezteko epea orpoz orpo luzatu zen. Luzapenak luzapen, zuzenketak aurkezteko azken data 2011ko martxoaren 29a izan zen. Diputatuen Kongresuari buruzko Araudiaren 97. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialak argitaratu egin zituen diputatu jaun-andreek Erregistro Zibilaren lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketak⁹.

Esquerra Republicana-Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya Verds parlamentu-taldeak, besteak beste, 43. zuzenketa aurkeztu zuen, lege-proiektuari honako xedapen gehigarri hau erants zekion¹⁰:

Lege hau argitaratzen denetik, gehienez ere, sei hileko epean, errege-lamendu bidez administrazio-prozedura berezia arautuko da, prozedura horrek, gerra zibilaren nahiz diktadura frankistaren biktimei dagokionez, hurrengoak ahalbide ditzan:

- Desagertutako pertsonen buruz Erregistro Zibilean inskripzioa egitea, horien datuak oraindik Erregistro Zibilean agertzen ez badira;
- Heriotzaren arrazoiari buruz erregistro horretan ager daitezkeen datuak eta inguruabarrak zuzentzea;
- Desagertutako pertsonen familiei doan aholku juridikoak ematea, Erregistro Zibilean inskripzioa behar bezala egin dadin.

Prozedurak aukera emango die, bai desagertutako pertsonen senideei, bai desagertutakoak euren bizitzako edozein unetan zein udalgetan erroldatuta egon eta udal horiei, inskripzio- nahiz zuzenketa-eskabideak egiteko. Era berean, kasuan-kasuan inskribatu nahi diren datuak benetakoak direla egiaztatzeko, prozedura horretan balioz-

⁹ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-26 zk., 2011ko apirilaren 6koa.

¹⁰ 18 eta 19. orr.

*koak izango dira zentzuz eskuratzeko moduko agiri ofizial nahiz lekukotza gehienak*¹¹.

Talde katalanak, idatzizko justifikazioa egitean, oroimen historikoa ekarri zuen gogora. Izan ere, gerra zibilak eta horren ondorengo agintaldiak hainbat herritar desagerrarazi zituen, Errepublikaren legezotasuna defendatzeagatik edota askatasunak berreskuratzearen alde borrokatzeagatik. Katalanek esandakoaren harira, Francoren estatu-kolpea gertatu eta egun gutxi batzuetara, jarraibide zehatzak eman ziren, eraildako pertsonen heriotzak erregistro zibiletan ez inskribatzeko; horrela, genozidioaren zantzurik txikiena ere ezabatu nahi zen. Egia esan, geroago aitortu egin zen eraildako pertsonen heriotza erregistratzeko aukera; baina, horretarako, “gerraren ondorioz desagertuta” eta antzeko esamoldeak erabili behar ziren, heriotzaren arrazoia faltsutzea onartuz, alarguntasun-pentsioa kobratzearen truk edota seme nagusiak soldadutzatik aske gelditzearen truk. Talde katalanaren ustez, bidezkoa da isildutako erailketak edo errepresio-kasuak azalaraztea eta faltsututako heriotza-arrazoiak zuzentzea. Ildo beretik, Tardà i Coma jaunak, *Esquerra Republicana-Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya Verds* taldearen izenean, ahoz egin zuen 43. zuzenketaren gaineko justifikazioa¹². Haren hitzetan, xedapenaren helburu zehatza zen biktimei eta horien ondorengoei merezi duten aitortza egitea, eta, bide batez, Espainiako estatuan gertatutako gehiegikeriak salatzea, bihar-etziko belaunaldiak horien berri izan zezaten. Alabaina, Justizia Batzordean zuzenketa horren gaineko botazioa egin zenean, emaitza argia izan zen: zuzenketaren alde, boto bakarra; zuzenketaren kontra, 35 boto; eta 2 abstentzio. Hortaz, 43. zuzenketa baztertuta geratu zen Diputatuen Kongresuan.

Ponentziaren txostena ikusita, Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordeak bere testua onetsi zuen, Erregistro Zibilari buruzko lege-proiektuaren gainean, eta, 2011ko maiatzaren 16an, Diputatuen Kongre-

¹¹ 18 eta 19. orr.

¹² Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresuaren Bilera Egunkaria, Justizia Batzordea, 769. zk., 2011ko maiatzaren 4koa, 3 eta 4. orr.

suak Senatuari igorri zion Justizia Batzordeak onetsitako testu hori. Senatuan, zuzenketak aurkezteko epea maiatzaren 27an bukatu zen¹³. *En-tesa Catalana de Progrés* taldeak 56. zuzenketa aurkeztu zuen, Diputatuen Kongresuan aurkeztutako (eta baztertutako) 43. xedapena hitzez hitz jasota, idatzizko justifikazio berberarekin.

Sozialisten parlamentu-taldeak, gai berberari buruz, 65. zuzenketa aurkeztu zuen Senatuan, eta zuzenketa horrek bere horretan jaso zuen, hain zuzen ere, egun indarrean dagoen xedapen gehigarria¹⁴. Idatzizko justifikazioan, sozialisten taldeak adierazi zuen, zortzigarren xedapen gehigarriaren bitartez, erregistroko espedientearen aplikazio-esparrua zabaltzen zela, antzinako errebindikazioari men eginez. Xedapena indarrean jarri aurretik, bi bide hauek erabil zitezkeen, gerra zibilean desagertutako pertsonen heriotzak inskribatzeko eta halako egoerak erregularizatzeko: bata, borondatezko jurisdikzio-espedientearen, heriotzaren inguruko adierazpen judiziala lortzea, eta, bestea, gobernu-espedientearen izapideak egitea. Borondatezko jurisdikzio-espedientearen, heriotzaren inguruko adierazpen judiziala lortzeko, lehen auzialdiko epailearengana jo behar da, eta hori, konplexua izateaz gain, garestia ere bada, batez ere, Estatuaren Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan ediktuak argitaratu behar direlako, eta, gainera, abokatuaren laguntza teknikoa izan behar delako. Gobernu-espedientea edo erregistro espedientea jurisdikzio-espedientea baino merkeagoa eta errazagoa da, baina honako zailtasun hau du: heriotza ziur-ziur frogatu beharra dago. Ildo horretatik, Erregistro Zibilaren Erregelamenduak, 278.1 artikuluan, argi uzten du inskripzioa egiteko ez dela nahikoa heriotza ezaguna izatea; aitzitik, ziurtasuna lortu behar da, eta ziurtasun horrek zentzuzko zalantza guztiak ezabatu behar ditu. Bistan denez, sozialistek proposatutako arauaren ondorioz, heriotzari buruzko frogaren zorroztasuna malgutu egiten zen.

¹³ Zuzenketa guztien berri izateko, ikus Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 74 zk., 2011ko ekainaren 7koa, 66.etik 117.erako orr.

¹⁴ 103. or.

Senatuan egindako ibilbideari dagokionez, 2011ko ekainaren 1ean, Justizia Batzordeak Ponentzia izendatu zuen eta Ponentziak bilera egin zuen ekainaren 16an. Bilera horretan, Ponentziak sakon aztertu zituen lege-proiektuaren testua eta horri Kongresuan egindako zuzenketa, baina ez zuen txostenik luzatu. Horregatik, Justizia Batzordean egin zen zuzenketa guztien azterketa, ekainaren 16an bertan¹⁵. Botazioan, *Entesa Catalana de Progrés* taldearen 56. zuzenketa baztertuta geratu zen; onetsi egin zen, ordea, sozialisten 65. zuzenketa. Gauzak horrela, Justizia Batzordeak bere irizpena luzatu zion Senatuaren lehendakariari, eta, irizpen horretan¹⁶, zortzigarren xedapen gehigarriak hitzez hitz jasotzen zuen sozialisten proposamena, egun ere indarrean dagoena.

Senatuaren osoko bilkurak, 2011ko ekainaren 22an egindako bileran, Justizia Batzordearen irizpena onetsi zuen, zortzigarren xedapen gehigarria bere horretan utziz¹⁷. Nolanahi den ere, *Entesa Catalana de Progrés* taldearen izenean, Bofill Abelló senatariak 56. zuzenketaren aldeko aldarrikapena egin zuen osoko bilkura horretan, transakzioa ezinezkoa izan zela gogoraziz; alabaina, botazioak berriro ere ezezkoa ekarri zuen: 239 bototik, 9 zuzenketaren alde eta 230 zuzenketaren kontra.

2011ko ekainaren 29an, Senatuak mezu zioduna bidali zion Diputatuen Kongresuari¹⁸, testuan egindako zuzenketa arrazoitzeko. Zortzigarren xedapen gehigarriari buruz, mezu ziodunak honako arrazoi hauek azaldu zituen:

¹⁵ Gorte Nagusiak. Senatuaren Bilera Egunkaria, Batzordeak, 536. zk., 2011ko ekainaren 16koa.

¹⁶ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 81-530 zk., 2011ko ekainaren 21ekoa, 30.etik 62.erako orr.

¹⁷ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-556 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 2.etik 33.erako orr.

¹⁸ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-557 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 34.etik 84.erako orr.

Zortzigarren xedapen gehigarri (berria)

Xedapen gehigarri honek arautzen du gerra zibilean nahiz diktadura-garaian desagertutakoen heriotza inskribatzea, eta, heriotzari buruzko frogaren zorrozatasuna malgutzen duen neurrian, erraztu egiten du erregistro-espediterearen bidea erabiltzea, prozedura hori borondatezko jurisdikzioarena baino azkarragoa eta merkeagoa baita.

Bukatzeko, Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak, 2011ko uztailaren 14ko bileran, Erregistro Zibilaren Legeari buruzko proiektua behin betiko onetsi zuenean¹⁹, ez zuen ukitu ere egin zortzigarren xedapen gehigarria. Osoko bilkurak testuaren gainean egindako azken eztabaida horretan, Ridaó i Martín jaunak *Esquerra Republicana-Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya Verds* taldearen izenean hitz egin zuen, eta, haren esanetan²⁰, onetsitako testua aurrerakada apal eta partziala besterik ez da, desagertutakoen inskripzioa sustatzeko bidean, eurena osatuagoa omen zelako.

2.2.b. *Xedapen honen ondoriozko berrikuntza*

Azken xedapenetatik seigarrenarekin gertatzen den bezala, zortzigarren xedapen gehigarria ere aurrerapausoa da, oroimen historikoa berreskuratze-ko bidean. Biktimen ondorengo aldarrikapen historikoa jasota geratzen da xedapen horretan, gaur egun arte prozedura luze eta garestiak erabili behar baitzituzten ondorengo horiek, desagertutakoen egoera Erregistro Zibilean erregularizatu ahal izateko. Eraldaketaz geroztik, horretarako nahikoa da ohiko administrazio-espediterearen izapideak egitea; eta, espeditere horretan, gainera, frogaren zorrozatasuna malgutu da, ez baita erabateko eta zailtzarrik gabeko frogabiderik eskatzen. Ohiko administrazio-espeditere erabili ahal izateak, bestalde, bi abantaila ditu²¹. Lehenengo abantaila guztiz

¹⁹ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-31 zk., 2011ko uztailaren 21ekoa.

²⁰ Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresuaren Bilera Egunkaria, Osoko bilkura eta batzorde iraunkorra, 262. zk., 2011ko uztailaren 14koa, 26. or.

²¹ Ikus <http://lamemoriaviva.files.wordpress.com/2011/07/documento509-inscripcion-de-defuncion-de-desaparecidos.pdf>

praktikoa da: Erregistro Zibileko espedienteak doakoak dira. Bigarren abantaila legitimazio aktibo anitzari dagokio. Izan ere, erregistro-espedientea sustatu ahal dute edo alderdi izan daitezke espedienteotan interes legitimoa duten guztiak. Are gehiago, espedientea sustatzeko betebeharra dute egitatearen inskripzioa sustatzeko betebeharra duten guztiak; beste modu batera esanda, heriotzaren inskripzioa sustatzeko betebeharra dutenak (senideak; auzokoak; heriotza zein establezimendutan gertatu eta establezimendu horretako burua; gobernu-agintaria...) behartuta daude, orobat, espedientea sustatzera. Gainera, Fiskaltzak ere espedienteak sustatzeko betebeharra du, espediente horien helburua denean erregistroa eta erregistrotik kanpoko errealitatea bat etortzea.

Bukatzeko, eta xedapenaren testuari erreparatuta, argi dago erregistro-espedientearen aplikazio-esparrua zabaldu egiten dela. Izan ere, orain arte indarrean egon den araubidearen arabera, erregistro-espedientea bidezkoa izan zedin, nahitaezkoa zen hilotza desagertzea, ez, ordea, bizirik dagoen pertsona desagertzea. Guztiz desberdina da hilotza desagertzea (kasu horretan, zalantzarik gabe, jakina da pertsona hil dela) eta bizirik dagoen gizakia desagertzea, nahiz eta azkenean haren heriotza ondorioztatu, haren berririk izan gabe hainbat denbora igaro delako (Kode Zibilaren 193. artikulua eta ondorengoak). Bestalde, eta jakina denez, heriotza-adierazpenak epailearen deklarazioa behar du. Alabaina, arau berriaren ondorioz, erregistro-espedientearen aplikazio-esparrua zabaldu egiten da, eta espediente hori titulu nahikoa bihurtzen da, gerra zibilean eta diktadura-garaietan desagertutakoen heriotza inskribatzeko, ez baita heriotza-adierazpena bide judizialek lortu behar.

2.3. Azken xedapenetatik hirugarrena

Azken xedapenetatik hirugarrena, aurreko xedapen gehigarriak bezala, indarrean dago 2011ko uztailaren 23az geroztik. Beraren testua, hitzez hitz, hurrengoa da:

Azken xedapenetatik hirugarrena. Kode Zibilaren eraldaketa.

Kode Zibilaren 30. artikulua aldarazi da, eta, aurrerantzean, idazkera hau izango du:

«30. artikulua.

Nortasuna eskuratzen da, bizirik jaiotzen den unean bertan, behin amaren sabeletik oso-osorik askatuta.»

2.3.a. Ganbera legegileetan egindako ibilbidea

Convergència i Unió taldeak aurkeztu zuen, Diputatuen Kongresuan, 77. zuzenketa, bihar-etzi azken xedapenetatik hirugarrenaren aurrekaria izango zena, honako idazkera honekin²²:

Azken xedapen (berria). Kode Zibila aldaraztea.

Bat. Kode Zibilaren 29. artikulua idazkera hau izango du:

«29. artikulua

Nortasun zibila pertsona fisikoari datxekio, jaiotze denetik.»

Bi. Kode Zibilaren 30. artikulua idazkera hau izango du:

«30. artikulua

Ernaldua pertsonatzat jotzen da, mesedegarri zaizkion ondore guztietarako, baldin eta jaiotzen bada.»

Hiru. Kode Zibilaren 745. artikulua idazkera hau izango du:

«745. artikulua

Ez dira oinordeko izateko gai:

1. Abortukinak.

2. Legeak onartzen ez dituen elkarte edo korporazioak.»

²² Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-26 zk., 2011ko apirilaren 6koa, 30 eta 31. orr.

Talde katalanak, aurkeztutako zuzenketaren idatzizko justifikazioa egi-
 tean, adierazi zuen oso garrantzitsua dela zehaztea zuzenbide zibilak, eta,
 oro har, zuzenbideak noiz aitortzen duen gizakia pertsona dela, eta, beraz,
 eskubideen subjektua izatez gain, nortasun juridikoa duela. Zientziaren
 eta teknikaren egungo egoera kontuan hartuta, talde katalanak anakroni-
 kotzat eta desegokitzat jotzen zuen ordu arte indarrean zegoen araubidea.
 Araubide horretan, ezinbesteko baldintzak ziren “giza itxura izatea” eta
 “hogeita lau orduz amaren sabeletik oso-osorik askatuta bizitzea”. Bi bal-
 dintza horiek, ziur asko, zentzuzkoak ziren Kode Zibila argitaratu zeneko
 garaian, baina gaur egun zentzurik gabekoak dira, batez ere, nazioarteko
 legeriak ezartzen dituen mugak gogoan izanik. Europako kode gehienu-
 tan, nortasun juridikoaren eta jaiotzaren arteko lotura zuzen-zuzenekoa
 da, inolako bitartekorik gabekoa, eta, talde katalanaren iritziz, Erregistro
 Zibila eraldatzeko abagunea aproposa izan zitekeen, lege-hizkera gure eta
 inguruko errealitate juridikoari egokitzeko; are gehiago, jaiotza Erregistro
 Zibilean inskribatzeko aurretiazko baldintza denean Kode Zibilaren 30.
 artikuluko baldintzak betetzea.

Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordean, Jané i Guasch jaunak,
Convergència i Unió taldearen izenean, 77. zuzenketaren ahozko justifika-
 zioa egitean²³, gogorarazi zuen Kataluniako Kode Zibilaren Legean ere
 nortasunaren eta jaiotzaren arteko lotura zuzen-zuzenekoa dela, adinga-
 been eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek ezartzen dutenaren
 harira. Estatuko lege zibil nagusiak ere, diputatu katalanaren ustez, ho-
 geita lau orduko betekizuna eta giza itxura izatearena ezabatu behar zi-
 tuen, bi horiek guztiz zaharkituta baitzeuden.

Justizia Batzordeko Ponentziak, bere txostena luzatu zuenean, ez zi-
 tuen jaso Kode Zibilaren 29 eta 745. artikulua aldatzeko proposame-
 nak; eta, 30. artikuluari dagokionez, beste testu hau barruratu zuen²⁴:

²³ Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresuaren Bilera Egunkaria, Justizia Batzordea, 769.
 zk., 2011ko maiatzaren 4koa, 10. or.

²⁴ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-28 zk., 2011ko
 apirilaren 6koa, 41. or.

«30. artikulua

Nortasuna eskuratzen da, bizirik eta amaren sabeletik oso-osorik askatuta jaiotzen den unean.»

Senatuan egindako ibilbideari dagokionez, *Convergència i Unió* taldeak 60. zuzenketa aurkeztu zuen. Proposamen horren xedea zen, izatez, Diputatuen Kongresutik jasotako testuan zuzenketa gramatikala egitea honetara:

«30. artikulua

Nortasuna eskuratzen da, bizirik jaiotzen den unean bertan, behin amaren sabeletik oso-osorik askatuta.»

Senatuko Justizia Batzordeak, 2011ko ekainaren 16an, zuzenketak banan-banan aztertu zituenean, onetsi egin zuen *Convergència i Unió* taldearen 60. zuzenketa, eta, beraz, halaxe jaso zen batzordearen irizpenean²⁵. Senatuaren osoko bilkurak, ekainaren 22an, Justizia Batzordearen irizpenean onetsi zuen, xedapenaren testua bere horretan onartzuz²⁶.

Ondoren, 2011ko ekainaren 29an, Senatuak mezu zioduna bidali zion Diputatuen Kongresuari²⁷, testuan egindako zuzenketak arrazoitzeko. Azken xedapenetatik hirugarrenari buruz, mezuak honako arrazoi hauek azaldu zituen:

Azken xedapenetatik hirugarrena

Kode Zibilaren 30. artikuluko idazkera berriak zehatzago ezartzen du noiz eskuratzen den nortasuna.

²⁵ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 81-530 zk., 2011ko ekainaren 21ekoa, 60. or.

²⁶ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-556 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 32. or.

²⁷ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-557 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 35. or.

Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak, 2011ko uztailaren 14ko bil-eran, Erregistro Zibilaren Legeari buruzko proiektua behin betiko onetsi zuenean²⁸, ez zuen ukitu ere egin atal honetan aztergai den xedapena.

Osoko bilkurak testuaren gainean egindako azken eztabaida horretan, Emilio Olabarria Muñoz jaunak Euzko Alderdi Jeltzalearen parlamentu- taldearen izenean hitz egin zuen, eta, haren esanetan²⁹, Senatuak hobetu egin zuen proiektua, gai garrantzitsu batzuetan; kasurako, Senatuak argi zehaztu zuen noiz eskuratzen den erregistroan inskribatu beharreko nortasuna: behin amaren sabeletik oso-osorik askatuta. Olabarria jauna- ren ustez, definizioa korapilatsuegi gerta daiteke, baina Diputatuen Kon- gresuan adostutakoa baino ulergarriagoa da.

2.3.b. *Xedapen honen ondoriozko berrikuntza*

Orain arte, Kode Zibilak nortasun juridikoa eratxikitzen zion jaiolari, bi baldintza betez gero: giza itxura izatea eta hogeita lau orduz amaren sabeletik oso-osorik askatuta bizitzea³⁰.

Giza itxura izatea Erdi Aroko testu juridikoen eskakizuna da. Gaur egungo aditu batzuen ustez, arkaismo iraingarri, zentzugabe eta alferre- koa da. Ez da arrazoizkoa pentsatzea emakumezkoek giza espeziak bes- teko izakiak erdiko dituztenik. Gainera, egun zalantzarik gabekoa da emakumeak bizirik erditzen duen izaki orori duintasuna dagokiola, giza-

²⁸ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-31 zk., 2011ko uztailaren 21ekoa, 23. or.

²⁹ Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresuaren Bilera Egunkaria, Osoko bilkura eta bat- zorde iraunkorra, 262. zk., 2011ko uztailaren 14koa, 27. or.

³⁰ Ángel Aznárez jaunak, Asturiaseko notarioak, bi baldintza horien zentzugabekeriak idatzi zuen, 2011ko urtarrilaren 23an. Dagoeneko, Gobernuak aurkeztua zuen Erregistro Zibilari buruzko Legearen proiektua Diputatuen Kongresuan, eta, proiektu horretan, ez zen inolako aipamenik ageri Kode Zibilaren 30. artikulua inguruan. Aznárez jaunaren hausnarketak eragingo omen zuen parlamentuko kideren batek zuzenketa egokia aurkeztea? Baliteke. Ikus Aznárez jaunaren testua, in [http://www.lne.es/opin- ion/2011/01/23/registro-vidas-muertes/1023691.html](http://www.lne.es/opinion/2011/01/23/registro-vidas-muertes/1023691.html)

ki orori dagokion bezala, kanpotik nahiz barrutik akatsak edo gabeziak eduki arren. Emakumezkoek munstroak erdiko dituztela eta animaliek emakumezkoak ernalduko dituztela aurrez ikustea, besterik gabe, misoginiaren eta emakumezkoenganako beldurraren erakusgarriak dira.

Hogeita lau orduz amaren sabeletik oso-osorik askatuta bizitzeak, bestalde, bi motibazio zituen. Lehendabizikoa ulergarria zen antzinako garaietan. Izan ere, eskakizun horrekin saihestu nahi ziren fetua bizirik ala hilda jaio zen jakiteko auziak, bai eta erditzearen inguruko itxura-egiteak ere. Egun nekez gerta daiteke halakorik, osasun-etxeetan erabat kontrolatzen baitira erditzeak. Bigarren motibazioa oinordetzari zegokion: jaioberria hilez gero, familiaren ondasunek euren ibilbidea alda zezaketen, eta, aitarengandik edo amarengandik zetorrena beste lerrora igaro zitekeenez gero, hori saihestu beharra zegoen. Ez du ematen egungo lege-gileek kezka hori dutenik, beste arau batzuekin (adibidez, haurdunaldia borondatez geldiarazteari buruzkoarekin) ez baitute hori erakutsi. Bigarren eskakizun honek berarekin zekarren, ondorenez, jaioberriak bere lehenengo eguna lege- nahiz administrazio-linboan egitea.

Bi baldintza horien ondorioz, hogeita lau orduz amaren sabeletik oso-osorik askatuta irauten ez zuena, aurreko legeriaren arabera, ez zen jaiotzat hartzen, eta, beraz, jaiotzarik ez zegoenez, ez zen inskripziorik egiten Erregistro Zibilean (medikuaren espedientean eta abortukinen paper-sortan ager zitekeenari kalterik egin gabe). Horrela, amatasun- eta aitatasun-eskubideak, neurri batean behintzat, urraturik geratzen ziren, ezin baitzen modu ofizialean agerrarazi semea edo alaba jaio izana, hogeita lau ordu igaro baino arinago hiltzeagatik. Esate baterako, emakumezkoak ume osasuntsua erditzen du, baina, sei ordu igarota, ohetik erori egiten zaio eta hil egitean da. Eraldaketa gertatu arte, Kode Zibila aplikatuta, ume hori abortukina zen eta amak ezin zuen inola egiaztatu ume hori izan zuenik; are gehiago, ikuspuntu administratiboari helduta, emakume horrek ez zuen umerik izan. Eraldaketaz geroztik, ordea, ume hori pertsona da, jaio den unetik.

Eraldaketari esker, Espainiak bere antolamendu juridikoa egokitu du, Kode Zibilaren 30. artikuluari dagokionez bederen, nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoa betez. Besteak beste, Umearen Eskubideei buruzko Hitzarmenak, Nazio Batzuen Biltzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20ko 44/25 Ebazpenaren bitartez onetsitakoak eta 1990eko irailaren 2an indarrean jarri zenak, beren-beregi ezartzen du, 7. artikuluan, umea jaio eta segidan inskribatuko dela³¹.

2.4. Azken xedapenetatik seigarrena

Bukatzeko, azken xedapenetatik seigarrena ere indarrean dago, honako idazkera honekin:

Azken xedapenetatik seigarrena. Gerra Zibilean nahiz diktaduragaraiari erbesteratutakoekin ilobek Espainiako naziotasuna eskuratzea.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, gerra zibilean nahiz diktadura-garaian pertsekuzioa edo bortizkeria jasan zutenen mesederako, eskubideak aitortu nahiz zabaldu, eta neurriak ezarri zitueneko gero, eta lege horren zazpigarren xedapen gehigarriak aukera-eskubidea arautu zuela kontuan hartuta, aukera-eskubide hori berori egikaritu ahal izango dute erbesteratutako emakumeen ilobek ere, baldin eta emakume horiek Espainiako naziotasunari eutsi bazioten, 1954ko abuztuaren 5az geroztik atzerritar batekin ezkontzeagatik, data horretan indarrean jarri baitzen 1954ko uztailaren 15eko Legea; horretarako, nahitaezkoa da emakumeok Espainiako naziotasuna ez eskualdatzea euren seme-alabei, horiek aitarenari eutsi ziotelako, eta nahitaezkoa da, orobat, ilobek horren inguruko adierazpena formalizatzea, xedapen hau indarrean jarri eta urte bateko epean.

³¹ Ikus hitzarmenaren testua, in <http://www2.ohchr.org/spanish/law/crc.htm>

2.4.a. *Ganbera legegileetan egindako ibilbidea*

Diputatuen Kongresuak lege-proiektuaren hasierako orrazketa egin zuenean, ez zuen ekarpenik egin arazo honen inguruan. Senatuan, ordea, Sozialisten Parlamentu Taldeak 67. zuzenketa aurkeztu zuen, azken xedapenetatik seigarrenaren testua hitzez hitz proposatzeko³².

Sozialisten taldeak, zuzenketaren idatzizko justifikazioa egitean, 52/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria gogorarazi zuen. Izan ere, xedapen horrek gerra zibilean nahiz diktadura-garaian erbesteratutako seme-alabei eta ilobei ahalbidetu zien Espainiako naziotasuna aukera-eskubidearen bitartez eskuratzea, euren gurasoek edo aitona-amonek ezin izan zietenean eskualdatu, naziotasun hori galtzera behartuak izan baitziren, harrera-herrialdeetan bizimodu berria hastekotan. Xedapen horrek, nolanahi ere, bidegabeko ondorioa eragin zuen praktikan, erbesteratutako emakume espainiar batzuen iloben kalterako; egin-eginean ere, emakumeok euren naziotasunari eutsi ziotenez gero, ezinezko gertatzen zen haien ilobei aipatu xedapena aplikatzea. Horrela, amonak Espainiako naziotasuna galduz gero, ilobek aplikagarri zuten 52/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria; aitzitik, amonak, 1954ko uztailaren 15eko Legea indarrean jarri ondoren ezkontzeagatik, Espainiako naziotasunari eutsiz gero, ilobek ez zuten aplikagarri aipatu xedapena, nahiz eta amona horiek Espainiako naziotasuna euren seme-alabei eskualdatu ez, seme-alabok aitarenari eusten ziotelako. Bidegabekeria hori zuzentzeko aurkeztu zen, aurkeztu ere, atal honetan aztergai den xedapena.

Senatuan egindako ibilbideari dagokionez, Senatuko Justizia Batzordeak, 2011ko ekainaren 16an, zuzenketa guztien azterketa egin zuenean, aho batez onetsi zuen Sozialisten Taldeak aurkeztutako 67. zuzenketa, eta halaxe jasoz zuen Justizia Batzordeak bere irizpenean³³, “bosgarren ter” zenbakia jarritz.

³² Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatu, I. saila, 74 zk., 2011ko ekainaren 7koa, 104. or.

³³ Gorte Nagusiak. Senatuaren Bilera Egunkaria, Batzordeak, 536. zk., 2011ko ekainaren 16koa, 5. or.

Senatuak, 2011ko ekainaren 29an, mezu zioduna bidali zionean Diputatuen Kongresuari³⁴, honako arrazoi hauek azaldu zituen azken xedapen honi buruz:

Azken xedapenetatik bosgarren ter (berria)

Azken xedapen honen xedea da, erbesteratutako emakume espainiar batzuen iloben kontra, 52/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria dela eta, nahi gabe gertatu diren ondorioak saihestea, emakumeok euren naziotasunari eutsi zioten neurrian.

Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak, 2011ko uztailaren 14ko bilera, Erregistro Zibilaren Legeari buruzko proiektua behin betiko onetsi zuenean³⁵, xedapenari zenbakia aldatu zion, eta, “bosgarren ter” zenbakiaren ordean, “seigarrena” jarri zion; ez zuen, ordea, testuan inolako ukiturik egin.

2.4.b. Xedapen honen ondoriozko berrikuntza

Zortzigarren xedapen gehigarriarekin gertatzen den bezala, azken xedapenetatik seigarrena ere aurrerapausoa da, oroimen historikoa berreskuratzeko bidean. Oroimen historikoa berreskuratzeko bide horretan kokatu behar da, berebat, abenduaren 26ko 52/2007 Legea, gerra zibilean nahiz diktadura-garaian pertsekuzioa edo bortizkeria jasan zutenen mesederako, eskubideak aitortu nahiz zabaldu, eta neurriak ezarri zituen³⁶. Lege horren zazpigarren xedapen gehigarriak hauxe ezarri zuen hitzez hitz:

³⁴ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 81-530 zk., 2011ko ekainaren 21ekoa, 61. or.

³⁵ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Senatua, I. saila, 86-557 zk., 2011ko ekainaren 29koa, 35. or.

³⁶ Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala. Diputatuen Kongresua, A saila, 90-31 zk., 2011ko uztailaren 21ekoa, 24. or.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Espainiako naziotasuna eskuratzea

1. Aita edo ama jatorriz espainiarra duten pertsonak Espainiako jatorrizko naziotasuna aukeratu ahal izango dute, baldin eta horren gaineko adierazpena formalizatzen badute, xedapen gehigarri hau indarrean jarri eta bi urteko epean. Ministroen Kontseiluak epe hori luzatu ahal izango du beste urte batez.

2. Eskubide hori aitortuko zaie ilobei ere, baldin eta aitona-amonak, erbestearen ondorioz, Espainiako naziotasuna galdu bazuten edo horri uko egin behar izan bazioten.

Bistan denez, xedapen horrek ahalbidetu zuen erbesteratuen seme-alabek eta ilobek, aukera-eskubidearen bitartez, Espainiako naziotasuna eskuratzea, euren gurasoek edota aitona-amonak ezin izan zieten naziotasun hori eskualdatu, harrera-herrialdeetan bizimodu berria egiteagatik, galdu egitera behartuta egon zirelako. Ondorio horietarako, erbesteratutzat jotzen dira 1936ko uztailaren 18tik 1955eko abenduaren 31 bitartean Espainiatik atera ziren espainiar guztiak. Horixe argitu zuen Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak, 2008ko azaroaren 4an emandako ebazpenaren bitartez³⁷, abenduaren 26ko 52/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria interpretatzean.

Xedapenaren helburua, edonondik begira dakiola, bidezko eta ulergarria zen. Alabaina, nahigabeko ondorioa sorrarazi zuen, batzuei tratua hobe eman eta besteei tratua okerragoa aitortu baitzien³⁸. Egin-eginean ere, zazpigarren xedapen gehigarri hori hitzez-hitz interpretatuta (Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak egin zuen bezala), ezin zitzaien aukera-eskubidea aitortu erbesteratutako emakumeen ilobei, emakume horiek Espainiako naziotasunari eutsi ziotenean, 1954ko abuztuaren 5az gozotik atzerritar batekin ezkontzeagatik, baldin eta

³⁷ Estatuaren Aldizkari Ofiziala, 310. zk., 2007ko abenduaren 27koa.

³⁸ Estatuaren Aldizkari Ofiziala, 285. zk., 2008ko azaroaren 26koa.

emakumeok ez bazieten Espainiako naziotasuna euren seme-alabei eskualdatu, horiek aitarenari eutsi ziotelako. Erregistro Zibilaren Legeak, ordea, iloba horiek aintzakotzat hartzen ditu, eta, azken xedapenetatik seigarrenaren bitartez, horiei ere aukera-eskubidea aitortzen die, arauaren aplikazio-esparrua zabalduz.

Horrela, erbesteratuen ilobei aukera-eskubidea aitortzeko tenorean, elkarren osagarri dira abenduaren 26ko 52/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria eta uztailaren 21eko 20/2011 Legearen azken xedapenetatik seigarrena. Egungo arautegiak, ondorenez, helburu bikoitza betetzen du: batetik, Konstituzioaren 11 (naziotasunari buruzkoa), 14 (berdintasunari buruzkoa), 39 (familiar, eta, bereziki, adingabeei eman beharreko babesari buruzkoa) eta 42. artikulua (atzerrian lanean ari diren espainiarrei buruzkoa) betearazten ditu, eta, bestetik, emakumezkoaren kontrako bereizkeriak haien ondorengoengan izan dituen ondorio latzetatik batzuk ezabatzen ditu.

³⁹ Interneten, tratu-desberdintasun horren inguruko kritikarik gogorrena, in <http://nacionalidades.blogspot.com/2010/02/nietos-de-exiliadas-la-farsa-continua.html>